

1	HASIERA
2	KREDITUAK
3	KONTSEILARIAREN AURKEZPENA
4	HELBURU OROKORRAK
5	
6	HELBURUAK
7	HELBURU DIDAKTIKOAK
8	SARRERA
9	1. OINARRIZKO BALIOAK: ERRESPETUA, ENPATIA, ELKARTASUNA
10	
11	2. IKASKIDEEN ARTEKO TRATU TXARRA
12	
13	3. ETA ZU BESTE IKASKIDE BATZUEKIN SARTZEN BAZARA...
14	4. TRATU TXARRAK ERAGITEN DITUZTEN TALDEAK
15	
16	5. ISILTASUN ERRUDUNA
17	
18	6. ETA ZER GERTATZEN DA ZIBERJAZARPENAREKIN?
19	
20	
21	KONTSULTARAKO WEBGUNEAK

Bakerako eta Bizikidetzarako Hezkuntza

BIZIKIDETZA POSITIBOA
BERDINEN ARTEKO JAZARPENAREN
ETA TRATU TXARREN AURREAN.

ZIBERJAZARPENA



Nafarroako
Gobernua



AURKIBIDEA

1	HASIERA
2	KREDITUAK
3	KONTSEILARIAREN AURKEZPENA
4	HELBURU OROKORRAK
5	
6	HELBURUAK
7	HELBURU DIDAKTIKOAK
8	SARRERA
9	1. OINARRIZKO BALIOAK: ERRESKETUA, ENPATIA, ELKARTASUNA
10	
11	2. IKASKIDEEN ARTEKO TRATU TXARRA
12	
13	3. ETA ZU BESTE IKASKIDE BATZUEKIN SARTZEN BAZARA...
14	4. TRATU TXARRAK ERAGITEN DITUZTEN TALDEAK
15	
16	5. ISILTASUN ERRUDUNA
17	
18	6. ETA ZER GERTATZEN DA ZIBERJAZARPENAREKIN?
19	
20	
21	KONTSULTARAKO WEBGUNEAK

Izenburua: BIZIKIDETZA POSITIBOA BERDINEN ARTEKO JAZARPENAREN ETA TRATU TXARREN AURREAN. ZIBERJAZARPENA

Egilea: Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuko Hezkuntzako Parte-hartzearen, Irakasleentzako Arretaren eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Zerbitzua

Diseinu Grafikoa: Ana Cobo

Argitaratze data: 2014ko urtarrila

© Nafarroako Gobernua

ONDOKO MATERIALETATIK ABIATUTA PRESTATURIKO UNITATEA:

www.acosoescolar.info/index.htm

www.protegeles.com

www.pantallasamigas.net/

[www.educacion.navarra.es/web/dpto/educacion-en-valores/
asesoria-para-la-convivencia/alumnado1](http://www.educacion.navarra.es/web/dpto/educacion-en-valores/asesoria-para-la-convivencia/alumnado1)

Oharra:

Material hau batez ere tutoretzatan erabili daiteke.



Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

AURKIBIDEA

1	HASIERA
2	KREDITUAK
3	KONTSEILARIAREN AURKEZPENA
4	HELBURU OROKORRAK
5	
6	HELBURUAK
7	HELBURU DIDAKTIKOAK
8	SARRERA
9	1. OINARRIZKO BALIOAK: ERRESPETUA, ENPATIA, ELKARTASUNA
10	
11	2. IKASKIDEEN ARTEKO TRATU TXARRA
12	
13	3. ETA ZU BESTE IKASKIDE BATZUEKIN SARTZEN BAZARA...
14	4. TRATU TXARRAK ERAGITEN DITUZTEN TALDEAK
15	
16	5. ISILTASUN ERRUDUNA
17	
18	6. ETA ZER GERTATZEN DA ZIBERJAZARPENAREKIN?
19	
20	
21	KONTSULTARAKO WEBGUNEAK

Nafarroako Gobernuo Hezkuntza Departamentuak hezkuntza programa hau diseinatu du eta gure Foru Erkidegoko ikastetxeei eskaintzen die, terrorismoaren aurrean bizikidetzak baketsu eta demokratikoko balioak sustatzeko eta gazteak kontzientziatzeko hitzak baliabide gisa eta ideiak demokratikoki defendatzeko baliabide eta modu gisa duen balioaz.

Izan ere, pertsonen duintasuna, guztion ongizatea eta giza eskubideak errespetatzen dituen gizarte bizikidetzak baketsua lortzea zailtzen duten mehatxu ugari daude: terrorismoa, elkartasun eza, tratu txarrak, indarkeria, etab. Horien aurrean, hezkuntza sistemak bestelako aukera positiboak sustatu behar ditu. Eskolak eta familiek, hedabideek eta gizarte eragileek elkarri lagundu behar diote lan horretan. Gatazkak prebenitu eta modu baketsuan ebatzi ahal izateko, garrantzitsua da aintzat hartzea gizaki orekiko errespetua eta hitzak norberaren ideiak azaldu eta defendatzeko duen balioa.

Nahitaezkoa da ikastetxe guztietan ikasleak ohar daitezela, hausnarketaren bidez, oinarritzko askatasunak baliatzeko orduan herritarrak babesten dituen estatu demokratiko batean inoiz ere ez dagoela justifikaturik helburu politikoetarako indarkeria edo terrorea erabiltzea. Halaber, nahitaezkoa da gazteei azaltzea eskubide eta askatasunak izan daitezen pertsonak errespetatuak

izan behar direla, biktimekiko elkartasun aktiboaren balioa sustatu behar da, azaldu behar da zertan oinarritzen den sistema demokratiko bat eta zein paper bete behar duten bertan justiziak, politikak eta gizarte zibileko erakundeek.

Terrorismoak denoi eragiten digu, eta zeinahi hezkuntza sistemak giza eskubideetan hezteko erantzukizuna du. Horretarako, hausnarketa beharrezkoa da eta indarkeria terrorista den gertaera lazgarri horri ordezko irmoak eskaini behar zaizkio, ez soilik ekintza terroristak gertatzen direnean, zeinahi motakoak direlarik ere, izan beharreko erreakzioari dagokionez, baizik eta gizartean, eta areago, eskola giroan ere gerta daitekeen zeinahi indarkeria ekintza eta motari ekiteko moduari dagokionez ere.

Indarkeria ez da prozedura egokia pertsonen edo taldeen arteko arazoak edo diferentziak ebazteko, biktimak, bidegabekeria eta sufrimendua eragiten baititu. Ezin da justifikatu indarkeriaren erabilera gainerakoen kontura onurak erdiesteko tresna gisa. Beharrezkoa da, gainera, baldintzak sortzea behin betiko apurtu ahal izateko “bestaldera begiratzeak” suposatzen duen “gaizkiaren hutsaltze” modu horren zabalduarekin; bai gizarte mailan, eta baita, bereziki, ikastetxe mailan, jazarpena edo berdinen arteko indarkeria bezalako fenomenoei dagokienez ere.

Hezkuntza Departamentuak, Bizikidetzarako Aholkularitzaren

bidez, urtero bizikidetzak baketsu eta demokratikoko balioak sustatzeko programak eta jarduerak garatzen ditu, gatazken prebentzioaren eta ebazpen baketsuaren bidez. Horren adibide ona da, besteak beste, *tratu onez* izeneko kanpaina, 2011-12 eta 2012-13 ikasturteetan egin zena, eta Hezkuntza Departamentuaren webgunean aurki daitezkeen hainbat material eta baliabide.

Hemen eskaintzen diren material didaktikoak, oro har, Nafarroako gizartearen eskura gelditzen dira, baina bereziki irakasleen eta ikasleen eskura, Indarkeriarik Ezaren eta Bakearen Eskola Egunaren ospakizunen kariatara.

Lehenbiziko unitate didaktikoa

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. ikasmaileri zuzendua dago. Tutoretzetan lan egiteko pentsatua dago, bereziki. Berdinen arteko jazarpenaren gaiari buruzkoa da, eta eskola giroan eman daitekeen zeinahi indarkeria mota eta ekintzaren aurrean ekiteko modua planteatzen du, barne hartuz ziberjazarpena, gaur gaurkoz hedatzen ari den fenomeno den aldetik. Besteak beste, helburua da, horren harira, guztion parte-hartze aktiboa eta erantzukizuna goiztiarki animatzea.

2. unitatea DBHrako dago diseinatuta, balio etiko eta zibikoetako hezkuntzaren testuinguruan. Bizitza sozialaren beharraz eta gizarteko guztion ongiaren garrantziaz hitz egiten da eta, era berean, herritartasunaren esparrua osatzen duten pertsona

guztien duintasunaz, azkenik, hausnarketa egiteko gizartearen ordenaren, guztion ongiaren eta pertsonen duintasunaren kontrako mehatxuen gainean. Azpimarratzekoa da Malala Yousafzaireren erredua. Malala neska pakistandar bat da, giza eskubideen defentsan irmotasunaren erreferente bihurtu dena, bereziki, terrorismo talibanaren aurrean, hezkuntzarako eskubideari dagokionez.

3. unitateak zuzenean lantzen du indarkeria terroristaren fenomenoa. Bigarren Hezkuntzan sartzeko pentsatua dago, zehazki, Batxilergoko 1.eko Filosofia irakasgaiaren baina bestelako curriculum edo tutoretza testuinguruetara ere egokitzeko modukoa da. Bereziki lantzen du zer den terrorismoa, zenbatekoa den terrorismoaren larritasuna eta azkenean memoria, duintasuna eta justizia merezi duten biktimen begiradan eta tokian zentratzen da. Herritar orok gizarte eraldaketan modu aktibo eta positiboan parte-hartzeko dugun erantzukizunaz eta gaitasunaz ere badihardu.

Ekarpen xume honekin harri koskor bat ezarri nahi da gizarte askotariko eta demokratiko bat eraikitzeko lanean. Gizarte bat, non duintasuna, justizia, askatasuna eta bakea guztion xede bihurtuko diren. Hezkuntza, hain zuzen ere, ezin da alde batera gelditu.

José Iribas Sánchez de Boado

NAFARROAKO GOBERNUKO HEZKUNTZAKO KONTSEILARIA

1	HASIERA
2	KREDITUAK
3	KONTSEILARIAREN AURKEZPENA
4	HELBURU OROKORRAK
5	
6	HELBURUAK
7	HELBURU DIDAKTIKOAK
8	SARRERA
9	1. OINARRIZKO BALIOAK: ERRESPECTUA, ENPATIA, ELKARTASUNA
10	
11	2. IKASKIDEEN ARTEKO TRATU TXARRA
12	
13	3. ETA ZU BESTE IKASKIDE BATZUEKIN SARTZEN BAZARA...
14	4. TRATU TXARRAK ERAGITEN DITUZTEN TALDEAK
15	
16	5. ISILTASUN ERRUDUNA
17	
18	6. ETA ZER GERTATZEN DA ZIBERJAZARPENAREKIN?
19	
20	
21	KONTSULTARAKO WEBGUNEAK

HELBURU OROKORRAK

Bakerako eta Bizikidetzarako Hezkuntza

- ▶ Giza bizikidetzaren baketsuaren oinarrian dauden baldintzak aztertzea eta barneratzea (duintasun bera pertsona ororendako, guztion ongiaren bilaketa solidarioa, justizia, aniztasunaren errespetua, enpatia, askatasun arduratsua, elkartasuna...).
- ▶ Ezagutzea, barneratzea eta baloratzea gizaki ororen duintasunaren ondoriozko eskubide eta betebeharrak, Gizakiaren Eskubideen Deklarazio Unibertsalean eta Espainiako Konstituzioan aitortuak.
- ▶ Justizia sozialari eta bizikidetzaren baketsuari ekarpena egiteko izpiritu kritikoan hezteko eta juizio moralerako gaitasuna sustatzea, printzipio eta balio etiko unibertsalean oinarrituz (norberaren duintasuna eta gizaki ororen oinarritzko eskubideak aitortzea eta errespetatzea, gainerakoak tratatzea norberak merezi duen eta tratatua izan nahi duen gisan, ez onartzea bitarteko bidegaberen erabilera edo horien justifikazio utilitarista - "xedeak ez ditu bitartekoak justifikatzen"-...), zeinahi aurreiritzi motaren aurrean.
- ▶ Bizikidetzaren sozialerako oinarri diren aldetik, sustatzea pertsonen duintasunarekiko erantzukizuna, errespetua eta elkartasuna, indarkeriarik eza, parte-hartze demokratikoa, herritartasun aktibo baten bulkada eta giza eskubideen eta tolerantziaren promozioa bezalako balioak.
- ▶ Lan egitea zenbait jarrera eta trebetasun eskura ditzaten, ondokoak laguntzeko: ideien defentsa legitimoerako hitzaren balioa; elkarren arteko ulermenean aurrera egiteko eta egia eta justizia bilatzeko tresna gisa elkarrizketa eta eztabaida; gizarte eremuko harreman errespetuzkoa; guztion lan eta betebeharretan parte-hartzea; eta gatazken ebazpen arrazional eta baketsua.
- ▶ Bizikidetzaren kaltetzen duten jarrerak eta zeinahi eratako indarkeria erabiltzeak dituzten ondorioez hausnartzea.
- ▶ Herritarren esparruan pertsonen eskubideekiko zeinahi estortsio, mehatxu eta mespretxuren aurrean erantzun baketsu eta irmorako gaitasuna sustatzea.
- ▶ Zeinahi indarkeria mota bidegaberen biktimekiko aitortza, elkartasun eta erreparazio moral eta sozialerako gaitasuna sustatzea eta, bereziki, indarkeria terroristaren biktimei dagokienez, axolagabekeria, sentikortasun faltan, inhibizioan edo omisio bidezko konplizitatean erortzea ekidinez.
- ▶ Hezkuntza prozesuaren barruan biktimen presentzia –aktibo eta interpelatzaile– egokirako espazio eta uneak eskaintzea, fisikoki zein bestelako bide eta euskarrien bidez, jasandako indarkeriaren lekukotza morala eskaintzeko, “errukiaren objektu” edo “hausnarketarako objektu” hustzat jotzetik harago.



1	HASIERA
2	KREDITUAK
3	KONTSEILARIAREN AURKEZPENA
4	HELBURU OROKORRAK
5	HELBURUAK
6	HELBURU DIDAKTIKOAK
7	SARRERA
9	1. OINARRIZKO BALIOAK: ERRESKETUA, ENPATIA, ELKARTASUNA
10	
11	2. IKASKIDEEN ARTEKO TRATU TXARRA
12	
13	3. ETA ZU BESTE IKASKIDE BATZUEKIN SARTZEN BAZARA...
14	4. TRATU TXARRAK ERAGITEN DITUZTEN TALDEAK
15	
16	5. ISILTASUN ERRUDUNA
17	
18	6. ETA ZER GERTATZEN DA ZIBERJAZARPENAREKIN?
19	
20	
21	KONTSULTARAKO WEBGUNEAK

Gizartean eta herritar gisa jarduteko gaitasuna

Hiru unitate didaktiko hauekin batez ere oinarritzko gaitasun hau landu nahi da, ikasleen artean herritartasun aktiboa sustatzeko. Balio hezitzailea duen zeinahi ezagutzak lagundu behar du atazak testuinguru eta egoera diferenteetan ebazten. Hezkuntzako gaitasunak "bizitzarako jakituria" dira, eta barne hartzen dute **jakitea** eta **egiten jakitea** eta, ezagutzak eskuratzeaz eta irizpide baliagarriak eraikitzeaz gain, bizitzako arazo eta egoeretan aplikazioa ere badute.

Gizartean eta herritar gisa jarduteko gaitasunak, zeinahi kontzeptzio utilitaristatik at, pertsonen garapen osoa eta osatua eragiten du. Pertsona orekatuek, arduratsuek, gaituek, ekimenez eta justiziaren eta elkartasunaren zentzuz hornituek... horiek soilik eman diezaioke duintasuna eta giza balioa gizartean bizitzeari. Pertsonak dira gizartearen abiaburu, helmuga eta bide.

Hezkuntzako gaitasun orok kontzeptuak, trebetasunak, jarrerak eta balioak biltzen ditu bere baitan, pertsona bati ahalbidetzeko modu asegarrian jardun ahal izatea bere bizitzako esparru diferenteetan; kasu honetan, bizitza moral eta sozialean.

Gizartean eta herritar gisa jarduteko gaitasunak, hemen ulertzen den gisan, jendetasuna sustatzen du, errealitate soziala ulertzen laguntzen du, bizikidetzak justizian eta bakean zeinen garrantzitsua den ulertzen eta herritartasun aktibo eta demokratikoa bizitzen.

Hezkuntzak, familian zein eskola eta gizarte testuinguruan oro har, gaur egun xedetzat du pertsonak gaitzea gizarte askotariko batean elkarrekin bizi ahal izateko, gainerakoekin modu positiboan erlazionatzeko, lankidetzan aritzeko, guztion ongiarekin konprometitzeko eta arazo, zailtasun eta desadostasunei modu irmo, baketsu eta positiboan aurre egiteko.

Gaitasun honek barne hartzen ditu, besteak beste:

a) Pertsona gisa portatzea geroz eta anitzagoa den gizarte batean elkarrekin bizitzeko moduan:

- Gainerakoekin erlazionatzea, lankidetzan aritzea eta arazoei, zailtasunei eta desadostasunei aurre egitea.
- Beste baten tokian jartzeko gaitasuna.
- Tolerantzia izatea, diferentziak onartzea eta norberaren balio, sinesmen eta kulturatik

bestelakoak dituzten pertsonak errespetatzea.

b) Herritar bizitzan erabat parte hartzea:

- Balio demokratikoen barneratzea eta balio horiekin koherenteak diren arau sozialen arabera portatzea.
- Estatu demokratikoaren oinarriak eta antolatze moduak ezagutzea, jakitea nola gauzatzen diren herritar askatasun eta betebeharrak eta nola gauzatzen den talde sozial eta erakunde demokratikoetan parte hartzea.

c) Aktiboki konprometitzea gizarte guztion ongi garatzen eta sustatzen:

- Esperientzia kolektiboak, gizartearen antolamendua eta funtzionamendua, Espainiako eta Europako gizartearen aberastasuna eta aniztasuna ezagutzea eta interpretatzen jakitea eta horien hobekuntzarako konpromisoa hartzea.
- Norberokotzat jotzea gainerako pertsonen beharrak eta duintasuna eta norberaren gaitasunak eta indarguneak eskaintzea guztion ongiaren zerbitzura jartzeko.



Nazio Batuen Giza Eskubideen Hezkuntzarako Mundu Mailako Programak, 2004ko abenduaren 10ean Nazio Batuen Batzar Nagusiak aldarrikatuak, helburutzat du giza eskubideak irakastea Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako eta goi mailako hezkuntzako hezkuntza sistemetan.

Hezkuntzak bakea, diskriminaziorik eza, berdintasuna, justizia, indarkeriarik eza, tolerantzia eta giza duintasunarekiko errespetua bezalako balioak barne hartu behar ditu. Giza eskubideen ikuspegian oinarrituriko kalitatezko hezkuntza batek eragiten du giza eskubideak hezkuntza sisteman luze eta zabal aplikatzea, ikaskuntzaren testuinguru guztietan.

AURKIBIDEA

1	HASIERA
2	KREDITUAK
3	KONTSEILARIAREN AURKEZPENA
4	HELBURU OROKORRAK
5	
6	HELBURUAK
7	HELBURU DIDAKTIKOAK
8	SARRERA
9	1. OINARRIZKO BALIOAK: ERRESPETUA, ENPATIA, ELKARTASUNA
10	
11	2. IKASKIDEEN ARTEKO TRATU TXARRA
12	
13	3. ETA ZU BESTE IKASKIDE BATZUEKIN SARTZEN BAZARA...
14	4. TRATU TXARRAK ERAGITEN DITUZTEN TALDEAK
15	
16	5. ISILTASUN ERRUDUNA
17	
18	6. ETA ZER GERTATZEN DA ZIBERJAZARPENAREKIN?
19	
20	
21	KONTSULTARAKO WEBGUNEAK

HELBURUAK :

- ✓ Errespetuan oinarrituriko bizikidetzaren prebentzio ez-berariazko eta zeharkakoa.
- ✓ “zuzentasuna” indartzea.
- ✓ Jazarpena eta tratu txarra prebenitzea, baita sare sozialetan eta interneten ere.
- ✓ Gertatzen den kasuetan, esku hartzea eta ekitea.
- ✓ Pertsonen arteko harremanetan eta adiskidetasun harremanetan errespetua sustatzea.
- ✓ Erresilientzia sustatzea, egoera bortitzen aurrean indartzeko eta nortasunean eta norbere usteetan irmotasuna izateko.
- ✓ Pertsonen eskubideak positiboki baloratzea...



AURKIBIDEA


1	HASIERA
2	KREDITUAK
3	KONTSEILARIAREN AURKEZPENA
4	HELBURU OROKORRAK
5	
6	HELBURUAK
7	HELBURU DIDAKTIKOK
8	SARRERA
9	1. OINARRIZKO BALIOAK: ERRESKETUA, ENPATIA, ELKARTASUNA
10	
11	2. IKASKIDEEN ARTEKO TRATU TXARRA
12	
13	3. ETA ZU BESTE IKASKIDE BATZUEKIN SARTZEN BAZARA...
14	4. TRATU TXARRAK ERAGITEN DITUZTEN TALDEAK
15	
16	5. ISILTASUN ERRUDUNA
17	
18	6. ETA ZER GERTATZEN DA ZIBERJAZARPENAREKIN?
19	
20	
21	KONTSULTARAKO WEBGUNEAK

HELBURU DIDAKTIKOK:

IKASLEAK GAI IZAN DAITEZELA:

- Bizikidetzaren positiboaren oinarrian dauden baldintzak aitortzeko eta norberetzat hartzeko (pertsonek ororen duintasun bera, aniztasunarekiko errespetua, enpatia, elkartasuna...)
- Giza pertsona ororen duintasunetik eratorritako eskubide eta betebeharrak ezagutzeko, norberetzat hartzeko eta balioesteko.
- Aurreiritzi mota ororen aurrean juzgu moralerako gaitasuna sustatzeko, printzipio eta balio etiko unibertsalean oinarrituz (gainerakoak tratatzea norberak tratatua izatea merezi duen eta nahi duen moduan...)
- Elkartasuna, enpatia, indarkeriarik eza, parte-hartze demokratikoa, tolerantzia eta erresilientzia bezalako balioen garapena bultzatzeko.
- Gatazkak prebenitzeko eta modu baketsu eta bidezkoan ebazteko bitarteko gisa, hitzaren eta elkarrizketaren balioa bultzatuko duten jarrera eta trebetasunak eskura ditzaten lantzeko. Eta baita errespetuaren kontrakoak diren portaera indarkeriazkoak eta bidegabeak baztertzeko ere.
- Bizikidetzaren kaltetzen duten jarrerak eta zeinahi eratako indarkeria erabiltzeak dituzten ondorioez hausnartzeko: errespeturik gabeko portaerak, irainak, mehatxuak, indarkeria fisikoa, jazarpena eta ziberjazarpena, etab.
- Zeinahi estortsio, mehatxu eta pertsonen eskubideekiko mespretxuren aurrean erantzun baketsu eta irmorako gaitasuna sustatzea eskolaren eta gizartearen esparruan.





→ Unitate didaktiko honetan ideia eta irizpideak ematen dira, bereizteko zer den zuzena bizikidetzan positiboan eta zer kaltegarri; eta berdinaren arteko jazarpen edo tratu txarren egoerak ematen diren kasuetan nola jardun jakiteko jarraibideak. ■

AURKIBIDEA

1	HASIERA
2	KREDITUAK
3	KONTSEILARIAREN AURKEZPENA
4	HELBURU OROKORRAK
5	
6	HELBURUAK
7	HELBURU DIDAKTIKOAK
8	SARRERA
9	1. OINARRIZKO BALIOAK: ERRESPECTUA, ENPATIA, ELKARTASUNA
10	
11	2. IKASKIDEEN ARTEKO TRATU TXARRA
12	
13	3. ETA ZU BESTE IKASKIDE BATZUEKIN SARTZEN BAZARA...
14	4. TRATU TXARRAK ERAGITEN DITUZTEN TALDEAK
15	
16	5. ISILTASUN ERRUDUNA
17	
18	6. ETA ZER GERTATZEN DA ZIBERJAZARPENAREKIN?
19	
20	
21	KONTSULTARAKO WEBGUNEAK

SARRERA

Denek nahi dugu eroso egon ikastetxeko gure lagun eta ikaskideekin, baina denek ezin dugu hori beti lortu.

Unitate didaktiko honetan zenbait neska-mutikok eskolan bizi dituzten egoerak lantzen ditugu. Berezi ki interesatzen zaizkigun egoerak dira norbait beste ikaskide batekin modu jarraituan sartzen denean, iraintzen eta jazartzen duenean, fisikoki erasotzera iritsiz edo sinpleki bazter utziz, ez ikusiarena eginez, adieraziz ez duela merezi berarekin harremanak izatea. Nolanahi ere, xedea min egitea eta pertsona horren gaineratik gelditzea da.

Batzuetan, neska, mutiko edo talde bat beste batekin sartzen hasten da eta ikasgela bereko gainerakoak edo ondoko ikasgeletakoak ere berarekin sartzen dira eta, azkenean, pertsona hori isolatua eta baztertua gelditzen da. Beste batzuetan, gerta daiteke, norbaitek, inolako arrazoirik gabe, beste bati mehatxu gisa esatea: “Irteeran zure zain naukazu” edo “Bihar ez badidazu dirurik ekartzen, ikusiko duzu”. Zenbait neska-mutiko izugarri kaltegarriak izan daitezke beren ikaskideendako eta beldurra eragin diezaiekete, iraintzearen eta gaizki tratatzearen poderioz.

Pertsona bakoitza gainerakoen diferentea da, eta hori gauza ona da. Bakoitza den modukoa da eta horrek apartekoak eta baliotsuak egiten gaitu. Talde, familia edo herrialde baten barruan, edo arraza baten barruan, inor ere ez da beste baten berdina. Denak gara desberdinak eta horrek gizateria aberastu egiten du. Baina era berean, giza pertsona guztiak berdinak gara naturaz, duintasunez eta oinarrizko eskubidez.

Ez pentsa arazoa mehatxatuak edo gaizki tratatuak diren pertsonak dituztenik. Alderantziz: arazorik handiena beren burua hobetzat dutenek dute. Bai, maiz amorerik ematen ez duten pertsonak aurkitzen ditugu, beraien gisakoak baino onartzen ez dituztenak. Desberdintasunen bat tarteko besteak gaizki tratatzen dituztenak errealitatearen ikuspegi arrunt itxietan zerraturik daude: beren mundua arrunt txikia da, beren buruan baino ez da existitzen. Eta, funtsean, indartsuagoa den batek min egin diezaiekeela, hori dute beldur.

Pertsona orok du bere duintasun pertsonala eta inongo ikaskidek ez du beste bat iraindu behar edo ez da berarekin sartu behar, zeinahi kanpoko zeinu duelarik ere (itxura fisikoa, arropa, markak, etab.) edo arraza, erlijioa edo kultura desberdinak dituelako. Ikaskideren bat zurekin sartzen bada zure arraza, itxura fisikoa edo janzteko edo pentsatzeko modua dela eta, ez iezaiozu kasurik egin. Zurekin sartzen bada hala ere, jakinaraz iezaiozu zure irakasle tutoreari, gaia tutoretzako irakasgaian lantzeko.

Pertsona bakoitza bakarra eta baliotsua da. Intolerantzia, mespretxua edo arrazakeria ikaskideen arteko tratu txarren formak dira. Ez ezazu utzi zure duintasun pertsonala eraso dezaten arrazoi horiengatik eta ez ezazu inor iraindu bere balio kulturalengatik edo erlijio sinesmenengatik, jatorriagatik, itxura pertsonalagatik edo janzteko edo pentsatzeko moduagatik. Pertsona guztiak gara desberdinak eta gure ezaugarri fisikoak, janzkera edo ohiturak errespetatu egin behar dituzte gainerakoek.

AURKIBIDEA

1	HASIERA
2	KREDITUAK
3	KONTSEILARIAREN AURKEZPENA
4	HELBURU OROKORRAK
5	HELBURUAK
6	HELBURU DIDAKTIKOAK
7	SARRERA
9	1. OINARRIZKO BALIOAK: ERRESPECTUA, ENPATIA, ELKARTASUNA
10	
11	2. IKASKIDEEN ARTEKO TRATU TXARRA
12	
13	3. ETA ZU BESTE IKASKIDE BATZUEKIN SARTZEN BAZARA...
14	4. TRATU TXARRAK ERAGITEN DITUZTEN TALDEAK
15	
16	5. ISILTASUN ERRUDUNA
17	
18	6. ETA ZER GERTATZEN DA ZIBERJAZARPENAREKIN?
19	
20	
21	KONTSULTARAKO WEBGUNEAK

1. OINARRIZKO BALIOAK: ERRESPECTUA, ENPATIA, ELKARTASUNA

Sagarroiak (narrazioa)

Izotz Aroan, animalia asko hotzaren ondorioz hiltzen ziren.

Sagarroiek, egoera hautesenez, taldeetan bizitzea erabaki zuten; horrela, beroa eta babesa ematen zioten elkarri.

Baina bataren **arantzak** bestea zauritzen zuten, hain zuzen ere, beroa ematen zieten hurbilekoak zauritzen zituzten. Eta horregatik, elkarrengandik urrundu egiten ziren.

Baina berriz ere hotza sentitu zuten eta erabaki bat hartu behar izan zuten: edo lurretik desagertzen ziren edo albokoen arantzak **onartzen** zituzten. Jakituria handiz, berriz ere elkarrekin bizitzea erabaki zuten.

Horrela, ikasi zuten bizitzen arrunt hurbilekoa den harreman batek eragin ditzakeen zauri txikiekin, azken finean, garrantzitsuena hurkoaren beroa zelako. Eta horrela lortu zuten irautea.

Harremanik onena ez da pertsona perfektuak lotzen dituenak. Harremanik onenean bakoitzak bestearen akatsak onartzen ditu eta bere akatsak onartuak izan daitezzen lortzen du.


Eta horretarako, errespetua funtsezkoa da.

ANONIMOA

Bizikidetzak batzuetan ezinulertu, gustu edo irizpide diferentzia txikiak onartzera behartzen gaitu, denak kontziente garelako gure ikaskide, lagun, familiareko eta beste pertsonekin dugun harremanari esker gauza on asko eskuratzen ditugula.

Hala ere, elkarrekiko errespetuak zenbait muga eskatzen ditu. Neska-mutiko batzuei kosta egiten

zaie ulertzea beste batzuk erasotzen dituztenean sufritu egiten dutela; alegia, **norberari min egiten dionak besteei ere min egiten diela**. Ez dira iristen ohartzera beste pertsonetikiko errespetua garrantzitsua dela, eta ez dute "enpatia" kontzeptua ulertzen, hots, **beste baten tokian jartzeko gaitasuna, bere eskubideak aitortzeko eta bere sentimenduak ulertzeko gaitasuna**.



AURKIBIDEA

1	HASIERA
2	KREDITUAK
3	KONTSEILARIAREN AURKEZPENA
4	HELBURU OROKORRAK
5	HELBURUAK
6	HELBURU DIDAKTIKOAK
7	SARRERA
9	1. OINARRIZKO BALIOAK: ERRESPECTUA, ENPATIA, ELKARTASUNA
10	2. IKASKIDEEN ARTEKO TRATU TXARRA
11	3. ETA ZU BESTE IKASKIDE BATZUEKIN SARTZEN BAZARA...
12	4. TRATU TXARRAK ERAGITEN DITUZTEN TALDEAK
13	5. ISILTASUN ERRUDUNA
14	6. ETA ZER GERTATZEN DA ZIBERJAZARPENAREKIN?
15	
16	
17	
18	
19	
20	
21	KONTSULTARAKO WEBGUNEAK

Denoi gustatzen zaigu gainerakoek uler gaitzaten eta errespetuz trata gaitzaten. Adiskidetasunean berdintasun egoera bat dago, eta bertan, lagunek txantxak egiten dituzte, jolastu egiten dute, baina ez dute elkarri min egiteko asmorik. Hori gertatzen denean, lagunek barkamena eskatzen dute eta bakea egiten dute. Horrela ikasten dute konfiantza eta errespetua izaten.

Hala ere, batzuk besteekin sartzen direnean min egiteko asmoz, sufriarazi egiten dituzte. Batzuetan, juzgu, jarrera eta portaera ankerretan erortzen da bat. Batzuek plazera sentitzen dute ikustean indartsuenak direla eta erraztasunez umiliatu dezaketela, eta horregatik jarraitzen dute umiliatzen.

Erasotzaileen antzera portatzen dira eta, funtsean, ez dira gai enpatia sentitzeko, gainerakoek balioa aitortzeko eta hurkoa gaizki pasatzen ari dela onartzeko.

Hori gertatzen denean, **ikaskideen arteko tratu txarren** egoera baten aurrean gaude. Eta jada ez da “*txantxa bat*”; pertsona batekiko jazarpena eta errespetu falta da, eta bide horretatik jotzen duena, azkenean gainerakoek aldetik gaizki ikusia izanen da eta bere eraso pairatzen duena bezain gaizki sentituko da. Gainera, zuzenean esan gabe, onartu egiten du beste batzuek eraso dezaketela edo gaizki trata dezaketela, bera baino indartsuagoak edo gehiago badira.

**Ez
egin inoiz zuri
egiterik nahi ez zenukeena.**

Eguneroko bizikidetzan onar ditzakegu akatsak edo tirabira zenbait, eta txantxak onak dira harremanerako bi aldeak ere ados daudenean txantxekin; baina norbait kalte egiten badiote, egiteari utzi behar zaio eta barkamena eskatu, hala behar bada.

Ikusten duzunean norbait sufritzen ari dela, jar zaitetz haren tokian eta pentsa ezazu nola sentituko zinatekeen egoera horretan.



AURKIBIDEA

1	HASIERA
2	KREDITUAK
3	KONTSEILARIAREN AURKEZPENA
4	HELBURU OROKORRAK
5	HELBURUAK
6	HELBURU DIDAKTIKOAK
7	SARRERA
8	1. OINARRIZKO BALIOAK: ERRESPECTUA, ENPATIA, ELKARTASUNA
9	2. IKASKIDEEN ARTEKO TRATU TXARRA
10	3. ETA ZU BESTE IKASKIDE BATZUEKIN SARTZEN BAZARA...
11	4. TRATU TXARRAK ERAGITEN DITUZTEN TALDEAK
12	5. ISILTASUN ERRUDUNA
13	6. ETA ZER GERTATZEN DA ZIBERJAZARPENAREKIN?
14	KONTSULTARAKO WEBGUNEAK

2. IKASKIDEEN ARTEKO TRATU TXARRA

Maiz, jazarriak direnak, hots, beste batzuen irainak eta irriak jasan behar dituztenak,, triste sentitzen dira, beldur izaten dira eta ez diote inori kontatzen nola sentitzen diren.

Arrunt modu sotiletan tratatu daiteke gaizki pertsona bat (mehatxuak, marmarrak, bazterketa, arbuioa...) eta horiek ere beste batzuk mintzeko eta jazartzeko moduak dira.

Tratu txarrak ematen dira norbaitek **beste bati kalte egiten dionean behin eta berriz**. Horrela, gainerakoen begietan indartsuago emanen duela iruditzen zaio. Garrantzitsua dela erakutsi nahi dio bere buruari.

Ikaskide batekin sartzeko eta gaizki tratatzeko hainbat modu daude:

- ▶ Lortzea gaizki tratatua den ikasleak, arazoak ekarriko dizkieten eta egin nahi ez dituen gauzak egin ditzala.
- ▶ Dirua eskatzea.
- ▶ Bakarrik uztea, gainerakoek ere berarekin harremanik ez izatea lortuz.
- ▶ Iraintzea, izengaitzak jartzea, iseka egitea, irri egitea.
- ▶ Zurrumurruak, gezurrak zabaltzea, marmarka aritzea.
- ▶ Ahoz edo idatziz mehatxatzea (oharrak, mezuak mugikorrean,...).
- ▶ Bultzakadak edo zartakoak ematea, borrokan aritzea edo jotzea.

Haur bat jazarria denean, egoera horietakoren bat edo batzuk paira ditzake, eta batzuetan ikaskideen talde bat izaten da tratu txarrak ematen dituen, nahiz eta beste batzuetan ikaskide bakar bat izaten den. **Jazarria den neska edo mutikoa iritsi daiteke pentsatzera bere errua dela gertatzen zaiona.**

Komeni da jakitea **tratu txarra denen isiltasunarekin elikatzen dela: eragileena, pairatzen dutenena eta ikusi arren deus egiten ez dutenena.**

Ikaskideen arteko tratu txarrak geldiarazteko modu bakarra gertaerak eta sentimenduak eza-gutzera ematea eta gertatzen ari denari buruz konfiantzazko norbaitekin hitz egitea da. Jakinarazten bada, errazagoa da norbaitek laguntzea eta ideiak ematea eraso geldiarazteko. Gertakariak jendurereko bihurtzen badira, jazarleak utzi egin behar dio jazartzeari eta egindakoen gainean kontuak eman behar ditu. Horregatik, **ez dugu sinetsi behar gure babesgabetasunaren gainean edo gure zalantzen gainean egia esateak salatari edo koldar bihurtuko gaituenik. Aitzitik: koldarra da mehatxuan edo taldean babesten dena, aurpegia ez emateko.** Maiz, erasotzaileak taldean babesten dira, ardiak bezala, baina bakarka ez dute adorerik eta segurtasunik beren kabuz moldatzeko.

Erasotzaileak geroz eta indartsuagoak sentitzen dira, ospetsu eta indartsu ikusten dute beren burua, gainerakoek beldurra dietela ikusten badute. Besteekiko errespetu faltak eta tolerantziarik ezak ondorio gisa dakarte jende gehiagori errespetua galtzea, eta ikasgelako larderiatsuak bihurtzea:



AURKIBIDEA

1	HASIERA
2	KREDITUAK
3	KONTSEILARIAREN AURKEZPENA
4	HELBURU OROKORRAK
5	HELBURUAK
6	HELBURU DIDAKTIKOAK
7	SARRERA
9	1. OINARRIZKO BALIOAK: ERRESPETUA, ENPATIA, ELKARTASUNA
10	2. IKASKIDEEN ARTEKO TRATU TXARRA
11	3. ETA ZU BESTE IKASKIDE BATZUEKIN SARTZEN BAZARA...
12	4. TRATU TXARRAK ERAGITEN DITUZTEN TALDEAK
13	5. ISILTASUN ERRUDUNA
14	6. ETA ZER GERTATZEN DA ZIBERJAZARPENAREKIN?
15	
16	
17	
18	
19	
20	
21	KONTSULTARAKO WEBGUNEAK

beldurra izaten zaie, baina funtsean, inork ere ez du haiekin egon nahi.

Tratu txarren kasuan pertsona bat dago beste batek (edo batzuek) jazarria eta gaizki tratatua sentitzen dena. Jazarlea indartsua egiten da eta besteen aurrean boterea eskuratzen du. Hala ere, **mespretxuaren eta bestearekiko errespetu faltaren bidea darabilen pertsona bat ez da benetan balioetsia, errespetatua edo miretsia, aitzitik, beldurra zaion pertsona bat da. Lortuko duen bakarra besteen beldurra da, ez errespetua, eta are gutxiago oraindik, estimua eta adiskidetasuna.**

Zenbait neska-mutikok uste dute, berekin sartzen direnean, onena isiltzea eta oharkabeen pasatzea dela, baina horrek maiz egoera gaiztotu baino ez du egiten. Nahitaezkoa da erresilientziarekin jardutea. Erresilientzia pertsonen zailtasunezko egoerak gainditzeko dugun gaitasuna da.

Argi dago txantxa bat egiten dutenei edo gurekin pixka bat sartzen direnei ez diegula erronkarik egin behar. Batzuetan hobe da zaila gerta dakigukeen egoera bat ekiditea. Baina modu jarraitu batean zurekin edo zure ikaskide batekin asko sartzen direnean, zer edo zer egin behar duzu:

- ✳ **Konta iezaiozu norbaiti:** lagun bati, irakasle bati, gurasoei edo laguntza eskatu
- ✳ **Beste ikaskideen babesa bila ezazu:** ez ibili bakarrik; bila itzazu lagunak haiekin harremanetan jartzeko.
- ✳ **Errespetu ezazu zure burua** eta pentsa ezazu inork ere ez duela eskubiderik zu gaizki tratatzeko behin eta berriz, kalte egin nahian. Izan

zaitez irmoa, eta pentsa ezazu **zuk beste zeinahi beste balio duzula.**

- ✳ **Saia zaitetz beldurrik ez erakusten.** Ahal duzunean, adierazi zure sentimenduak konfiantzazko norbaiti, lagun diezazun konponbideak bilatzen.
- ✳ **Jakinarazi iezaiozu irakasle tutoreari zer gertatzen zaizun eta esaiozu zure ikasgelako taldean bizikidetzaz hitz egitea nahiko zenukeela, gaia zure arazoan oinarritu gabe.**
- ✳ **Berrikusi** itzazu esaten dituzun edo egiten dituzun gauzak batzuek zure ikaskideak mintzen dituzten edo gustatzen ez zaizkien jakiteko eta saia zaitetz horiek aldatzen, konturatzen bazara horrek benetan gogaitu egiten dituela. Horrela bada, praktika itzazu halako egoeretan jarduteko bestelako moduak, gainerakoak ez molestatzeko.

Ez zaitetz gelditu deus egin gabe. Adierazi zure egoera konfiantzazko norbaiti. Eskatu laguntza.

Zuk zeuk lagun dezakezu ez daitezen “isiltasun erruduneko” egoerak gertatu. Nola?

Izan zaitetz kritikoa halako portaerekin eta ez utzi txantxak nahitako eraso bihur daitezen eta, batez ere, ez hartu parte eta ez isildu ikusten duzunean zer ari diren egiten.



AURKIBIDEA

1	HASIERA
2	KREDITUAK
3	KONTSEILARIAREN AURKEZPENA
4	HELBURU OROKORRAK
5	HELBURUAK
7	HELBURU DIDAKTIKOAK
8	SARRERA
9	1. OINARRIZKO BALIOAK: ERRESPECTUA, ENPATIA, ELKARTASUNA
10	
11	2. IKASKIDEEN ARTEKO TRATU TXARRA
12	
13	3. ETA ZU BESTE IKASKIDE BATZUEKIN SARTZEN BAZARA...
14	4. TRATU TXARRAK ERAGITEN DITUZTEN TALDEAK
15	
16	5. ISILTASUN ERRUDUNA
17	
18	6. ETA ZER GERTATZEN DA ZIBERJAZARPENAREKIN?
19	
20	
21	KONTSULTARAKO WEBGUNEAK

3. ETA ZU BESTE IKASKIDE BATZUEKIN SARTZEN BAZARA...

Zenbait neska-mutikok beldurra sentiarazten diete gainerakoei. Beren portaeretan irudi gogor eta erasokor bat erakusten dute, baina agian irudi hori ez dator beren benetako sentimenduekin bat. "Mozorro" hori ohikoagoa da mutilengan. Baina jakina, denetarik egon daiteke; batzuetan neskek nahiago dituzte horren agerikoak ez diren tratu txar erak: zurrumurruak zabaltzea, norbaiti buruz gaizki esaka aritzea, adiskidetasun zirkuluetatik bazterzea...

Maiz, beste batzuekin sartzen denak arazoak izaten ditu etxean, edo bere inguruan ikusten duen portaera erasokor bat errepikatzen ari da, edo sinpleki ez daki bere burua kontrolatzen. Hori bada zure kasua, agian gertatzen zaizuna da gaizki pasatzen ari zarela eta funtsean ziurtasunik ez duzula zurekiko, baina gainerakoekiko gogortasuna erakutsi nahi duzula.


Eraso jarraitua maiz zure kontra itzultzen da eta min egiten dizu zuri ere.

HORREGATIK, IZAN KONTUAN ONDOKOA:

Bizikidetzarako aholkularitza



- **Ez pentsa jendeak beldurrarazten duzulako errespetatzen zaituenik.** Beldurra badizute, baina berez ez zara onartua. **Bila ezazu gainerakoek errespetua, ez haiek menderatzea.**
- Ez zaitetz konformatu jokatzeko zure moduarekin. **Saia zaitetz zure erreakzio oldarkorrek aldatzen eta erreparatu egiozu beste pertsona batzuek egoera berean portatzeko duten moduari.**
- Egin kontu epe laburrera litekeena dela zerorrek irabaztea; baina epe luzera, jarraitzen baduzu besteekin sartzen, arazo asko izanen dituzu bizitzan. **Erasoak lehenago edo beranduago onartu beharko dituzun ondorioak ditu.**
- **Eskatu laguntza** irakasle, orientatzaile edo tutorenen bati, familia **arazoak badituzu.** Gaizki bazaude edo zure arazoez hitz egin nahi baduzu norbaitekin, **izan konfiantza gainerakoengan.**
- Pentsa ezazu besteei nolako kaltea egiten diezun. **Jar zaitetz haien tokian eta imajinatu nola sentituko zinaten zurekin.**
- **Zure lagunek zure indarkeriazko joerak indartzen badituzte,** eta erasotzaile modura porta zaitetzen bultzatzen bazaituzte, **bila itzazu lagun berriak** eta utz itzazu lehengoak pixkanaka.
- Haserre sentitzen zarenean eta ezin duzunean zure amorrua kontrolatu, hartu sakon arnasa eta **saia zaitetz** zure burua kontrolatzen. Konta ezazu bostera arte ekin aurretik eta, posible baduzu, erretira zaitetz toki lasai batera, bertan barrenak hustu ahal izateko.



AURKIBIDEA

1	HASIERA
2	KREDITUAK
3	KONTSEILARIAREN AURKEZPENA
4	HELBURU OROKORRAK
5	
6	HELBURUAK
7	HELBURU DIDAKTIKOK
8	SARRERA
9	1. OINARRIZKO BALIOAK: ERRESPECTUA, ENPATIA, ELKARTASUNA
10	
11	2. IKASKIDEEN ARTEKO TRATU TXARRA
12	
13	3. ETA ZU BESTE IKASKIDE BATZUEKIN SARTZEN BAZARA...
14	4. TRATU TXARRAK ERAGITEN DITUZTEN TALDEAK
15	
16	5. ISILTASUN ERRUDUNA
17	
18	6. ETA ZER GERTATZEN DA ZIBERJAZARPENAREKIN?
19	
20	
21	KONTSULTARAKO WEBGUNEAK


4. TRATU TXARRAK ERAGITEN DITUZTEN TALDEAK

Tratu txarretan gakoetako bat da taldeko ekintza. Txantxa txikiekin hasten da (adibidez, izengaitz iraingarri bat jarritz). Ondoren, talde bat sortzen da, iraina behin eta berriz errepikatuz. Pixkanaka ekintzen intentsitatea eta larritasuna areagotuz doaz. Halako kasuetan lider bat izaten da (gehien jazaritzen duena, min egiteko ideia gehien dituen...). Liderrak taldean aurkitzen du aterpea, bertan sentitzen da babestua. Jazarpenean aurrera egin ahala, erasotzaile taldeak gainerako ikaskideekiko itxi egiten dira, eta biktima erabiltzen dute taldeko kide izatearen sentsazioa indartzeko.

Beren ekintzak batzuetan gainerakoen ekintzetan islatzen dira. Horrela, erasotzaileen taldean sartu nahi duenak berdin trata dezake gaizki biktima, onartua izateko. Areago, gerta daiteke bigarren talde sortzea eta, lehenbizikoaren intentsitatez eraso gabe ere, biktimarekin sartzen hastea; horrela ikusten dute botere partzela bat eskuratzen dutela.

Horrek guztiak beldurra eragiten du ikaskideen artean. "Txantxei" irri egiten dieten behatzaileek eta ikusten ari direna salatzen ez dutenek, talde erasotzailearen larderiako ekintzak indartzen dituzte. Tratu txarretako egoera hauetakoren batean parte hartzen baduzu, gainerakoak jazarriko dituzten taldeak sortzea animatzen ari zara.

Ikaskideen arteko tratu txarrak batzuetan talde mailako ekintzara lotuta daude. Lider bat izaten da, eta hura gainerakoek lagundu eta babesten dute. Jazarpena imitatu dezakete biktimari tratu txarra antzeko moldean emanen dioten talde berri batzuek. Erasotzaile taldeak indartzeko beste modu bat da horrela jarduten dutenen ekintzekin barre egitea eta egiten uztea. Horrelako moduren batean jokatzeko baduzu, tratu txarrak zure ikasgelan eta eskolan askoz ere maiztasun handiagoz emateko aukerak areagotzen ari zara.



AURKIBIDEA

1	HASIERA
2	KREDITUAK
3	KONTSEILARIAREN AURKEZPENA
4	HELBURU OROKORRAK
5	HELBURUAK
6	HELBURU DIDAKTIKOAK
7	SARRERA
8	1. OINARRIZKO BALIOAK: ERRESPECTUA, ENPATIA, ELKARTASUNA
9	2. IKASKIDEEN ARTEKO TRATU TXARRA
10	3. ETA ZU BESTE IKASKIDE BATZUEKIN SARTZEN BAZARA...
11	4. TRATU TXARRAK ERAGITEN DITUZTEN TALDEAK
12	5. ISILTASUN ERRUDUNA
13	6. ETA ZER GERTATZEN DA ZIBERJAZARPENAREKIN?
14	KONTSULTARAKO WEBGUNEAK

5. ISILTASUN ERRUDUNA

Tratu txarren egoerei aurre egiteak beldurra eman dezake, joera baitugu erasotua den neska edo mutikoari laguntzen diona helburu bihurtuko dela pentsatzeko.

Hala ere, isilik gelditzen bazara, zure jarrerarekin jazarpena onartzen duzula ulertuko da eta horrela baliatua izanen da, eta zeharka jazarleen kide bihurtuko zara. Nolanahi ere, ohikoa da pentsatzea errazena dela arazoetan ez sartzea.

Jar zaituzte jazarria izaten ari den pertsonaren tokian eta erantzun iezaiozu zintotasunez galdera honi: pertsona horri pasatzen ari zaiona niri pasatzea nahiko nuke? Zuri EZ balitzaizuke gustatuko, eginahalak egin beharko zenituzke egoera alda dadin, zure esku dagoena egin behar duzu justiziaren alde eta indarkeriaren kontra. Baliteke indarkeriazko portaera baten aurrean egotea. Hala bada, bete beharreko erantzukizun bat duzu. Zure erabakia isiltzea bada, pentsatu behar duzu zeintzuk diren zure isiltasunaren ondorioak, zuretzako zein beste pertsona batzuekiko.


Tratu txarreko egoerak ikusten dituzenean, EKIN: ez utzi halakorik egiten, ez txalotu jazarleen graziak, jakinaraz iezaiozu irakasleari eta proposatu ezazu gauza hauetaz tutoretzan hitz egitea.

EZ ISILDU, ISILTASUNAK JAZARPENA BETIKOTZEN DU ETA.

Baina erasotzaileei zuzenean aurre egin beharra izan gabe, hainbat modu dago laguntzeko.

Adibidez:

- ✗ **Ez txalotu** besteekin sartzen direnen **graziak**.
- ✓ **Hitz egin jazarria den ikaskidearekin** eta galde iezaiozu nola sentitzen den eta zer gertatzen zaion.
- ✓ **Konfiantzako irakasle batekin edo zure tutorearekin komentatu** ikusten ari zarena.
- ✓ Konta ezazu etxean egoera eta **bila ezazu gurasoen aholkua**.
- ✓ **Erasoak behin eta berriz gertatzen badira edo intentsitatea oso larria bada** (borrokak, irainak, erasoak gimnasioko aldageletan, jazarpena klasetik irtetean, mehatxu larriak edo kalte handia eragin dezaketen bestelako ekintzak), **abisatu berehala heldu bati**.
- ✓ Sor ezazu, tutorearen laguntzarekin, **boluntario talde bat** balizko biktimei **laguntzeko**.
- ✓ Idatz ezazue denen artean, tutoretzan, **ikaskideen arteko errespetu kode bat**.
- ✗ **Ez isildu: bestela erasotzailearekiko zeharkako tolerantzia eta babesa erakusten ariko zara.**



AURKIBIDEA

1	HASIERA
2	KREDITUAK
3	KONTSEILARIAREN AURKEZPENA
4	HELBURU OROKORRAK
5	HELBURUAK
6	HELBURU DIDAKTIKOAK
7	SARRERA
9	1. OINARRIZKO BALIOAK: ERRESPECTUA, ENPATIA, ELKARTASUNA
10	2. IKASKIDEEN ARTEKO TRATU TXARRA
11	3. ETA ZU BESTE IKASKIDE BATZUEKIN SARTZEN BAZARA...
12	4. TRATU TXARRAK ERAGITEN DITUZTEN TALDEAK
13	5. ISILTASUN ERRUDUNA
16	6. ETA ZER GERTATZEN DA ZIBERJAZARPENAREKIN?
21	KONTSULTARAKO WEBGUNEAK



Errespetua da, ziurrenik, **gizatalde** handi zein txikietan **beharrezkoena den portaera ildoa**.

Errespetua jarrera bat da, gainerakoen balioa eta duintasuna aitortzen eta estimatzen duena, gainerakoak balio horren arabera tratatuz. Bizikidetza positibo ororen gakoa da. Gauzei, gauzen ospeari eta izen onari dagokio –kalte handia egiten digute besteek gure bizkar hedatzen dituzten zurrumurruek edo gezurrek–. Ez ditugu gaizki tratatu behar gauzak, ez ditugu hondatu behar...



– JARDUERA –

Elkarrekin Pixarren film labur atsegin bat ikusi, errespetuari eta tolerantziari buruz. “For the Birds” du izena (2011). Honatx filmaren esteka, youtuben:

www.youtube.com/watch?v=3dq2dJcZBJA



Pixarren film laburrik ezagunenetakoa bat da. Errepi-de ondoko argindarraren kablean zenbait txori pausatuz doaz. Denak han daudenean, txori handiago eta baldarrago bat pausatuko da haien artean, eta kableak behera egingen du. Txoritzarra izorratu eta erorarazi ondotik, gainerakoek lumatuta eta txoritzarraren gibelean ezkutatuta bukatuko dute.

Hiru galderak gidatutako iritzi trukea egin daiteke ondotik:

1. Zer kontatzen du film laburrak?
2. Bizitzan antzeko gauzak gertatzen dira? Adibide gehiago jar ditzakegu?
3. Egoera hauek ez gertatzeko zein azken hausnarketa egin dezakegu?

AURKIBIDEA

1	HASIERA
2	KREDITUAK
3	KONTSEILARIAREN AURKEZPENA
4	HELBURU OROKORRAK
5	HELBURUAK
7	HELBURU DIDAKTIKOAK
8	SARRERA
9	1. OINARRIZKO BALIOAK: ERRESPECTUA, ENPATIA, ELKARTASUNA
10	
11	2. IKASKIDEEN ARTEKO TRATU TXARRA
12	
13	3. ETA ZU BESTE IKASKIDE BATZUEKIN SARTZEN BAZARA...
14	4. TRATU TXARRAK ERAGITEN DITUZTEN TALDEAK
15	
16	5. ISILTASUN ERRUDUNA
17	
18	6. ETA ZER GERTATZEN DA ZIBERJAZARPENAREKIN...?
19	
20	
21	KONTSULTARAKO WEBGUNEAK

6. ETA ZER GERTATZEN DA ZIBERJAZARPENAREKIN...?

Sare sozialen, Whatsapparen edo interneten bidez oro har, hainbat jazarpen egoera larri eta arriskutsu gertatzen dira. Ziberjazarpena edo *ciberbullying*-a esaten zaio. Ziberjazarpena –adin berekoen artekoa, baina baita beste pertsonak egina– irainak, isekak, umiliazioak, mehatxuak, xantaiak... etab. barne hartzen dituen eseste mota da, kanal teknologikoen bidez egina.

Izan ere, hainbatek baliatzen dituzte beste pertsona batzuen datuak umiliatzeko, xantaia egiteko, zurrumurruak eta gezurrak zabaltzeko, jakinarazteko fisikoki nolakoa zaren, zure gustu eta afizioak zeintzuk diren, zure lagunak nor diren, non barna ibiltzen zaren..., besteek ezagutzea nahi ez duzun zure datu intimo edo sekretuak hedatzeko.

Horregatik komeni da Interneten barna erabateko segurtasunarekin nabigatzea. Ez ahaztu, zure informazio pertsonala modu kaltegarri eta masibo batean erabiltzeko arriskuan zaude, ez badakizu ere.


Denek dugu eskubidea gure datuak babesteko:
ZUK ERE BAI

Website, foro edo txatetan jasotzen ditugun eskaintzak tentagarriak zaizkigu. Bereziki kontuz ibili behar dugu foroetan, txatetan edo sare sozialak bezalako

guneetan. Horrek Whatsapp-erako ere balio du. Arriskuez jakitun izan behar dugu, ez dugu Interneten sartu behar fidagarriak ez diren guneetan, ez ditugu datu pertsonalak edo argazkiak ezezagunekin trukatu behar.

PantallasAmigas-ek sortutako animazioa, nabigazio seguruaren gakoak irakasteko. Bertan kontatzen da neska-mutiko talde batek gakoak bildu behar dituela beren ikaskideei internet segurtasunez erabiltzen laguntzeko:

▶ Internet segurtasunez erabiltzeko 10 gakoak:




www.youtube.com/watch?v=2TferQprZ0g

▶ Interneten eta sare sozialen erabilera segururako aholkuak:



www.youtube.com/watch?v=t-x73w1N1os



AURKIBIDEA

1	HASIERA
2	KREDITUAK
3	KONTSEILARIAREN AURKEZPENA
4	HELBURU OROKORRAK
5	
6	HELBURUAK
7	HELBURU DIDAKTIKOAK
8	SARRERA
9	1. OINARRIZKO BALIOAK: ERRESKETUA, ENPATIA, ELKARTASUNA
10	
11	2. IKASKIDEEN ARTEKO TRATU TXARRA
12	
13	3. ETA ZU BESTE IKASKIDE BATZUEKIN SARTZEN BAZARA...
14	4. TRATU TXARRAK ERAGITEN DITUZTEN TALDEAK
15	
16	5. ISILTASUN ERRUDUNA
17	
18	6. ETA ZER GERTATZEN DA ZIBERJAZARPENAREKIN?
19	
20	
21	KONTSULTARAKO WEBGUNEAK

Zer da datu pertsonal bat?

- ▶ ZURE IZEN-DEITURAK, NORTASUN AGIRIAK...
- ▶ ZURE ERABILTZAILA IZENAK EDO PASAHITZAK.
- ▶ ZURE ARGAZKIA.
- ▶ BIDEO GRABAZIO BAT, MUGIKORREKIN.
- ▶ ZURE AHOTSA GRABATUA MUGIKORREKIN KONPAINIARA DEITZEN DUZUNEAN...

Interneteko joko batean erregistratzen zarenean edo txateatu egiten baduzu, edo zure argazkia webgune batean argitaratzen duzunean, alta emateko eta jokoak edo bideoak alokatzeko, adibidez, zure datuak eskatzen dituzte. Baina, kasu:

ZURE DATUAK GARRANTZITSUAK DIRA!!!!

- **Nor zaren esaten dute.**
- **Non bizi zaren esaten dute.**
- **Zer gustatzen zaizun esaten dute.**
- **Zure gurasoak nor diren esaten dute.**
- **Zer erosten, jaten edo janzen duzun esaten dute.**
- **Zure informazio pribatu edo konfidentzialera nola sar daitekeen esaten dute.**

Zain ezazu zure irudia Interneten



Zenbaitek zure datuak nahi dituzte, eta ikasi behar duzu noiz eman behar dituzun eta noiz ez. Zure datuak eman gabe ezin izanen zara ikastetxera joan, autobusera igo, liburutegitik liburuak atera edo zure kirol maiteenean lehiatzeko federatu. Zure datuei esker ikasi eta gauzak erosi ditzakezu, dibertitu zaitezke.


Baina kontuz ibili behar duzu, izan ere, **zenbaitek zure datuak edo zure irudia baliatu nahiko dituzte**. Antzeman ditzakezu, ez dizutelako esaten zertarako nahi dituzten, ez dietelako zure gurasoei baime-nik eskatzen eta ez dizutelako esaten nor diren: **EZ EMAN INOIZ ZURE DATURIK HORRELA KOEI.**

Zure datuek, baita zure sekretu edo intimitateek, besteek ezagutzerik nahi ez dituzunek, hedapen masiboa izan dezakete eta min handia egin dieza-zukete. Eta gauza bera gerta dakieke zure lagunei edo familiakoei.

Interneten, kasu!: denak ez dira izaten esaten duten hori. Eta igotzen dituzun datu guztiak mugarik gabe zabal daitezke, eta nahiko ez zenukeen norbaitek ere jaso ditzake.

→ **Datuak eskatzen badizkizute, irakur ezazu eman behar dizuten informazioa.** Azalduko dizute zeintzuk datu behar dituzten, nork nahi dituen eta zertarako erabiliko dituzten. Esanen dizute nola jakin dezakezun zeintzuk datu dituzten, nola aldatu eta nola ezabatu. **Ez badizute hori guztia esaten, ez eman zure daturik.**

→ Zure datuak eskatzen dituztenean ez badizute esaten zertarako erabiliko dituzten, edo ez baduzu ulertzen esaten dizutena. 14 urtetik behera badituzu eta ez badizute zure gurasoen baimenik eskatzen datuak eskuratzeko, ez zaitez fida eta ez eman daturik.



AURKIBIDEA

1	HASIERA
2	KREDITUAK
3	KONTSEILARIAREN AURKEZPENA
4	HELBURU OROKORRAK
5	
6	HELBURUAK
7	HELBURU DIDAKTIKOAK
8	SARRERA
9	1. OINARRIZKO BALIOAK: ERRESPECTUA, ENPATIA, ELKARTASUNA
10	
11	2. IKASKIDEEN ARTEKO TRATU TXARRA
12	
13	3. ETA ZU BESTE IKASKIDE BATZUEKIN SARTZEN BAZARA...
14	4. TRATU TXARRAK ERAGITEN DITUZTEN TALDEAK
15	
16	5. ISILTASUN ERRUDUNA
17	
18	
19	6. ETA ZER GERTATZEN DA ZIBERJAZARPENAREKIN?
20	
21	KONTSULTARAKO WEBGUNEAK

Bazenekien espainiar legediaren arabera 14 urtetik beherako batek ezin diola inori baimena eman bere datu pertsonalak edo argazkiak eskuratzeko?

→ **Ez eman inoiz zure datuak ezezagun bati.** Ez eman zure izen-deiturarik, ez esan non bizi zaren, zein den zure *Messenger* erabiltzailea edo zure mugikorreko zenbakia. Interneten informazioa konpartitu soilik lagunekin, ezagutzen duzun jendearekin, konfiantzazkoekin eta zure gurasoek eza gutzen dituztenekin. **Jardun beti zure hizketaldiak publikoak balira bezala eta zure argazkiak edo datuak ezagutzen ez dituzun hirugarrenek ikusiko balituzte bezala.** Imajinatu zer gertatuko litzatekeen irudi, informazio edo artxibo horien gaineko kontrola galduko bazenu eta zuk nahi ez duzun eskutara iritsiko balira. Horregatik, manten ezazu zure datuen eta irudiaren isilpekotasuna eta erreserba, segurtasun muga egoki batzuen barruan.

→ **Zure erabiltzaile izenak eta pasahitzak sekretuak dira.** Zure gurasoei baino ezin dizkiezu eman. Beste batzuek eskatzen badizkizute, inoiz ez dizkiezu eman behar. *Messenger*, *Google Talk* edo *Yahoo Messenger* bezalako mezularitza edo txat pribatuak erabiltzen badituzu, konpartitu itzazu soilik zure lagunekin. Ez gonbida inoiz ere jende arrotza edo ez utzi gonbida zaitzaten!

→ **Ez ireki blog bat edo orri pertsonal bat zure gurasoek jakin gabe.** Soilik orduan zintzilikatu ahal izanen dituzu argazkiak, bideoak... orduan hitz egin ahal izanen duzu zure gustuen gainean, baina hala ere kontuz ibili... *Interneteko* orri batek nor zaren, zer egiten duzun, zer gustatzen zaizun eta zer ez, zeri diozun beldurra... esaten du. Datuak arrotzengana irits daitezke eta gero zu umiliatzeko, jazartzeko edo zuri edo zuk maite dituzunei (familia, lagunak...)

min emateko balia daitezke. Ez duzu nahiko zeinahi ezezagunek, edo bere benetako nortasuna ezkutuan duen batek, adibidez, jakitea nor zaren, zer gustatzen zaizun edo non bizi zaren, ezta?

→ **Jada blog bat edo orri pertsonal bat baldin baduzu, errespetatu itzazu zure lagunak eta ikaskideak. Ez eman zure izenak edo helbideak. Ez argitaratu inoiz beste norbaiten argazkirik, berak edo bere gurasoek baimenik eman ez badizute.**

→ *Interneteko* zerbitzu bat erabili aurretik, saia zaitez ikusten zein adinetik aurrera erabili daitekeen. **Interneten eta bizitza errealean zure adinerako egokiak diren tokiak baino ez duzu erabili edo irakurri behar, bertan baino ez dituzu jolastu behar.** Helduendako tokiak oso arriskutsuak izaten dira, fede txarreko jendea izan daitekeelako eta min handia egin diezaiekutelako besteei.

→ **Ez deskargatu ezagutzen ez duzun programarik, ez ireki ezezagunen mezurik. Programa espia bat instalatu, zure ordenagailua edo zure datuak baliatu delituak egiteko... halakoak egin ditzakete.** Ikasi antibirusa erabiltzen. Ordenagailua zure familiak ere erabiltzen badu, eta norbaitek lortzen badu espiazea eta datu konfidentzialak eskuratzeko, zure familiaren datuak, txartelen pasahitzak, erabiltzaile izenak eta pasahitzak... ere arriskuan jar ditzakezu.

→ **Izan ezazu beti konfiantza zure gurasoengan, galde iezaiezu zalantzarik baldin badituzu, kontatu iezaiezu non barna nabigatzen duzun eta zeintzuk datu eskatzen dizkizuten, erakutsi iezaiezu instalatu nahi duzun programa, kontsulta iezaiezu posta arraroak iristen bazaizkizu... ez eman inoiz zure daturik edo ez erakutsi zure argazkirik gurasoak jakinarekin ez badaude.**




AURKIBIDEA

1	HASIERA
2	KREDITUAK
3	KONTSEILARIAREN AURKEZPENA
4	HELBURU OROKORRAK
5	HELBURUAK
7	HELBURU DIDAKTIKOAK
8	SARRERA
9	1. OINARRIZKO BALIOAK: ERRESKETUA, ENPATIA, ELKARTASUNA
10	
11	2. IKASKIDEEN ARTEKO TRATU TXARRA
12	
13	3. ETA ZU BESTE IKASKIDE BATZUEKIN SARTZEN BAZARA...
14	4. TRATU TXARRAK ERAGITEN DITUZTEN TALDEAK
15	
16	5. ISILTASUN ERRUDUNA
17	
18	6. ETA ZER GERTATZEN DA ZIBERJAZARPENAREKIN?
19	
20	
21	KONTSULTARAKO WEBGUNEAK

→ Internet bidez presioak edo mehatxuak jasotzen badituzu edo norbaitek min eman badizu edo xantaia egin badizu... esaeizu gurasoei, fida zaitez haietaz. Ez izan beldurrik, lagun zaitzakitelako edo lor dezaketelako laguntza egokia. Xehetasun garrantzitsu bat: norbaitek Whatsapp bidez edo bestelako bide birtual batez jazartzen bazaitu, elkarrizketa hori ez duzu inolaz ere ezabatu behar, proba eta pista hori erabili daitekeelako zu kaltetzen edo mehatxatzen ari dena/zaizuna lokalizatzeko. Arrunt garrantzitsua da **xantaiari ez amore ematea** inolaz ere, izan ere, horrek xantaiagilearen indar posizioa areagotzea baino ez dakar, elementu kopuru handiagoa emanez, kasu, irudi edo bideo erotiko edo pornografikoak.


→ Komeni da halaber arrunt **zuhurrak izatea webcamaren erabilerarekin**. Webcamak arrunt informazio xehea ematen du jabearen gainean, edo erakutsi nahi ez den informazioa. Webcamera igortzen dena bestaldean grabatua izan daiteke, eta urrutitik manipulatu ere egin daiteke. Horregatik, ez da komeni irudien trukea erabiltzea beste pertsonaren nortasuna ezagutzeko, eta komeni da kontuan izatea **zenbait aholku**:



<http://www.cuidadoconlawebcam.com>



1. Erabili soilik erabateko konfiantzazko solaskideekin eta kameraren aurrean ez egin inoiz jendaurrean eginen ez zenukeenik.
2. Izan kontuan beti testuinguruaren informazioa (logela, dekorazioa, afizioak, etab.); kamera horiek transmititzen egon daiteke.
3. Manten ezazu ekipoa software gaiztotik libre, urrutiko aktibazioak ekiditeko.
4. Kamera angelu hil batera biratu ez zarenean erabiltzen ari, horrela, ekidinen dugu oharkabean edo urrutitik aktibatu dutelako irudi desegokiak igortzea. Ekipo eramangarrian txertatua badator, aski da zeloarekin edo antzeko beste zerbaitekin estaltzea.
5. Solaskidearen nortasuna ezagutu nahi bada eta berarekin webcameko irudia trukutzen bada une batez, une horietan eskatu behar zaio ekintza partikular bat egiteko (adibidez, betaurreko batzuk simulatzeko, begietan hatzekin bi biribil eginez), berma diezagun ez dela grabazio bat erakusten ari.



AURKIBIDEA

1	HASIERA
2	KREDITUAK
3	KONTSEILARIAREN AURKEZPENA
4	HELBURU OROKORRAK
5	
6	HELBURUAK
7	HELBURU DIDAKTIKOAK
8	SARRERA
9	1. OINARRIZKO BALIOAK: ERRESPETUA, ENPATIA, ELKARTASUNA
10	
11	2. IKASKIDEEN ARTEKO TRATU TXARRA
12	
13	3. ETA ZU BESTE IKASKIDE BATZUEKIN SARTZEN BAZARA...
14	4. TRATU TXARRAK ERAGITEN DITUZTEN TALDEAK
15	
16	5. ISILTASUN ERRUDUNA
17	
18	6. ETA ZER GERTATZEN DA ZIBERJAZARPENAREKIN?
19	
20	
21	KONTSULTARAKO WEBGUNEAK

KONTSULTA BALIAGARRIAK EGITEKO ETA GAI HAUEN GAINEAN GEHIAGO JAKITEKO:

www.pantallasamigas.net/



www.internet-grooming.net/decalogo-grooming-acoso-sexual-menores-online.html



www.infanciaytecnologia.com/



www.navegacionsegura.es/



www.prevencionciberbullying.com



www.internetsinacoso.com

Ciberbullying kasuetan laguntzeko lerroa

Detenidas dos niñas por ciberacoso a una menor que se suicidó

Rebecca Ann Sedwick, de 12 años, saltó al vacío desde una cementera abandonada en un pueblo de Florida

<http://www.lavanguardia.com/sucesos/20131017/54392082895/detenidas-ninasciberacoso-menor-suicidio.html>

Riesgos en Internet

LOS PELIGROS DE LA RED PARA LOS MENORES DE EDAD

AVISO LEGAL QUIÉNES SOMOS



ÚLTIMA ENTRADA.

Miss Teen USA, víctima de Sextorsión por hackeo de Webcam

PUBLICADO POR PANTALLASAMIGAS - 19/05/2013

Cassidy Wolf, recientemente coronada como Miss Teen USA (Miss Adolescente Estados Unidos), ha decidido comparecer en diversos medios de comunicación para hablar de cómo fue sextorsionada antes de resultar ganadora del concurso de belleza, cuando Cassidy era menor de edad.

<http://riesgosinternet.wordpress.com/>

